

V.—Etxegarai jaunak esan digu zertan dan ta nora dihoan oraintsu sortu dan: *Federación de acción popular vasca*. Etxegarai beronek Euskaltzaindiaren ordelza bazkun beri ortan egin lezake.

VI.—Euskaltzaindiak jardun du Iztegi beriko neologismo-taldea aztertzen ta atzoko ta gaurko lanaz *Abogado* arte iritxi da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Azila'ren 29'an.

Batzañaldira euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza ta Lakonbe: urgaztetatik Ormaetxea jauna. Otoitz egin da.

I.—Aita Intzak, Olague'n, Napañoan, oraintsu egindako euskal-jaien beri eman digu. Jakina da, euskal-jai abek Napañoako *Euskeraren Adiskideak* egin dituztela ta beren euskal-lanetan añera ta añera dihoazela, begien añre dago: aixtian, euskal-bilkun onek, Azkue jaunaren eta Aita Donostiaren abesti-liburuetatik ateratako abesti-xorta argilaratu du.

II.—Azkue jaunak bere lan bat irakuri digu: *Capitán Duvoisin*'en esku-idazki bateko arloa dakar, *gramatikari* dagokiona. Azkue berak aitortu digu, Capitán onen lanak baduela zer gora ta zer ikasi, garai antziñan idatzia dan ezkerro.

III.—Euskaltzaindiak, añreko batzañalditan erabaki zanez, Iztegi beriañren lanari gogor ekin dio; bañan lan ontarako *afijación*'en ardura-arduzazko ikasbide berezi bat egin bear da, efex ta lirainki itz-beri edo

neologismoak sortu ditezen. Nai luke Euskaltzaindiak len bai len Iztegia argitaratu bañan itz-beñien sail onek garaia bear.

IV.—Altube jaunak, an da emen, onlako ta alako liburuetan bildutako itz eta esakun, Azkue jaunaren Iztegi aundian ez daudenak, irakufi dizkigu. Beste ainbat Eguskitza jaunak, Aita Lhandek oraintsu argitaratzen duen iztegitik bilduak.

V.—Joan dan ilean esan bear zan batzaraldiaurêko Espiritu Santuaren Meza etzan eman, aztu giñalako. Biar Euskaltzaindia Santiago Elizara, goizeko bederatzitan, Mezara joango da. Meza Aita Intzak emango du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik ototzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Azila'ren 30'an.

Aurêko batzaraldian aitatzen diran jaun berak datoz. Otoitz egin da.

I.—Aita Intza-ren bitartez, Euskaltzaindiak artu ditu Aita Arayoz eta aita Ikastegietak, Iztegi beñirako egin dituzten lanak. Ongi egiñak daude. Atsegin aundiz artu ditu ere Iñazio Mari Etxaidek Iztegirako biatzen dizkion txartelak. Abek ere ederki egin eta tajutuak daude.

Euskaltzaindiak biotz-biotzeko eskeñak jaun abei damazkie.

II.—Aita Intzak dio : Aita Pastor Arayoz-ek berebiziko lan sakona dakarkigula Iztegiaren arazo ontan ta zerbaitz saritu bear litzakela. Baietz dio Euskaltzaindiak: ta saria izango da idaz-fresna edo maquiña,